

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Patri Urkizu Sarasua

*Lezo, Gipuzkoa
(1946-2024)*

Aurkibidea



Biografia



Lezoko San Juan kalean jaioa, guraso biak Lezokoak zituen; ama Olatzar baserrikoa eta aita kaletarra, arotza ogibidez. Bost senidetan gazteena (beste anai-arrebak gerra aurrean jaio ziren, eta Patri gerraostean, aita erbestetik itzuli zenean).

Arantxa Berasarte maistrarekin ibili zen eskolan, 5 urtetik 11 urtera arte eta gero Donostiako Mariaren Bihotza ikastetxean ibili zen, harik eta fraidegai bidali zuten arte, karmeldarrekin (Zornotzara eta erribera aldera). 1964an Ingenieritza ikasten hasi zen Madrilen, eta bertan euskara irakasten ere bai. Euskal Filologia ikasi nahi zuela eta, Salamancara joan zen Filologia Erromanikoa ikastera, Koldo Mitxelena bertan zegoelako irakasle. Euskara batuaren sorrera prozesua gertutik bizi izan zuen. Peñafloida institutuan egon zen irakasle, eta ondoren UNEDen euskal gaiekin lotutako materiala sortzen. Lezoko alkate izan zen trantsizioan. Idazlea da (narrazioa, poesia, saiakera...) eta Idazleen Elkarteko zuzendari ere izan zen. Eusko Ikaskuntzan ere aritu zen. Ikerlaria da, eta hainbat gairi buruzko ikerlanak egin ditu: antzerkia, literatura, bertsolaritza... euskal antzerkiari buruzko informazioa jasotzeko egin genion elkarrizketa eta gero literaturari buruzko beste bat. Aurretik ere elkarrizketatua zegoen, Lezoko hizkera jasotzeko; urte asko eman ditu herritik kanpo eta euskara batuan hitz egiten saiatzen da.

Zintak

LEZ-055

- **Proiektua:** Lezoko hizkeraren grabaketak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix - Esnaola Arbiza, Imanol
- **Data:** 1998-02-28
- **Iraupena:** 66 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

LEZ-097

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2019-06-04
- **Iraupena:** 124 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Lizeaga, Irati

LEZ-098

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-06-22
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

LEZ-099

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2020-06-22
- **Iraupena:** 82 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Euskaren egoera gerra ostean eta hirurogeiko hamarkadan

- **Erref:** LEZ-055/013
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 00:32:26. **Bukatu:** 00:36:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gerra ondorenean, kalean ez zen euskaraz asko hitz egiten, familia jakin batzuez aparte. Eskolan ere gazteleraz egiten zuten. Hirurogeigarren hamarkadan bizitasun gehiago zegoen euskara eta euskal kulturaren inguruan. Antzerki taldeak eta luistarrek pizkundea bultzatu zuten, baita Esnal eta Esnaolak ere. Guraso elkarteak euskarazko klaseak ematen zituen Patrik hamazazpi urterekin.

2. Euskal giroa zabaltzen

- **Erref:** LEZ-055/014
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:36:45. **Bukatu:** 00:39:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

1970ean Lezora itzulitakoan, euskararen inguruko giroa zabaltzen ari zen. Rikardo Arregi alfabetatzearekin hasita zegoen, euskal liburuak ateratzen. 1968an Arantzazuko biltzarrean egon zen Patri, euskara batuaren oinarriak ezarri ziren hartan. Institutuan ordur kanpo eta gau-eskolan ematen zituen euskarazko eskolak.

3. Euskararen galera eta inmigrazioa

- **Erref:** LEZ-055/020
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:50:57. **Bukatu:** 00:54:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

Industrializazioaren eraginez, biztanle kopurua bikoiztu zenean, diglosi egoera sortu zen, gaztelaniak euskarari lekua kenduz. Euskararen galeraren kontzientzia piztuz joan zen.

4. Euskarazko kanten transmisioa

- **Erref:** LEZ-055/025
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 01:04:30. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Don Inaziok kantak erakusten zizkien. Eguberrietan etxez etxe kantuz ibiltzen ziren eta denak euskaraz ziren. Kantagintza euskal kultura zabaltzeko gakoetako bat dela dio elkarrizketatzaileak.

5. Guraso biak lezoarrak

- **Erref:** LEZ-097/003
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:03:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Guraso biak Lezokoak zituen. Aita, Patrizio Urkizu Maritxalar. Ama, Maria Luisa Sarasua Leunda. Aitaren ama Goizuetakoa zen. Amaren aita, ordea Urrestillakoa.</p>

6. Gerra garaian aita erbestera

- **Erref:** LEZ-097/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:57. **Bukatu:** 00:05:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Arotza zen aita, eta kaletarra. Ama, ordea, Olatzar baserrikoa zuen. Kaleko etxea lantegi askoren ondoan zegoen, Lezoko sarreran. Gerra garaian aitak erbestera joan behar izan zuen, abertzale izanagatik.

7. 'Zoazte hemendik'

- **Erref:** LEZ-097/005
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:05:57. **Bukatu:** 00:09:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Herritarrek herriko bikarioa babestu zuten anarkistengandik, harik eta bikarioak alde egiteko esan zioten arte. Babesle horietako bat zen Patri Urkizuren aita. Istorio hau 'Zoazte hemendik' liburuan jaso zuen Patrik. Amak zaindu zituen umeak, Margarita izebaren laguntzaz, zeinak Erretereriako manta fabrian egiten zuen lan.

8. Lezo: soroak eta industria

- **Erref:** LEZ-097/007
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:09:13. **Bukatu:** 00:10:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Oso herri txikia zen Lezo, zelaiz eta baserriz beterikoa. Baserrietako bidea industriad zegoen. Gereziak jatera joaten ziren umetan baserriz baserri.

9. Arantza Berasarteren ikasle

- **Erref:** LEZ-097/008
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:10:35. **Bukatu:** 00:14:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Patri ez zen eskola nazionalera joan. Arantza Berasarte izeneko emakumeak haren etxe azpian zuen eskola. Harengana joan zen Patri 5-11 urte bitartean. Eskola librea zen hau, eta azterketak Donostian egiten zituzten. Dena erdaraz egiten zuten eskolan. Apaizak dotrina irakasten zien, euskaraz.

10. Zornotzan eta Erriberan fraidegai

- **Erref:** LEZ-097/009
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:14:20. **Bukatu:** 00:17:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

<p>Hamaika urterekin Mariaren Bihotza ikastetxera joan zen Patri, Donostiara. Batxillergoa egin zuen bertan. Ondoren, karmeldarrekin 4 urte eman zituen fraidegai, Zornotzan eta Erriberan. Ikasketak klasikoak ziren batik bat.</p>

11. Lezoko euskara, goi-nafarrera

- **Erref:** LEZ-097/010
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:02. **Bukatu:** 00:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Hautzaroraren zati handi bat kanpoan pasa duenez, Lezoko hizkera galdu duela dio. Lezo eta Errenteriako euskara oso antzekoa da, Oiartzungoa ez hainbeste.

12. Errenteriako Madalen sariketan bigarren postua

- **Erref:** LEZ-097/011
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:18:39. **Bukatu:** 00:20:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aita oso abertzalea zen, ama familia karlista bateko kide. Aitak haren memoriak bertsotan utzi zituen idatzita. Errenteriako Madalen sariketako bigarren saria irabazi zuen Patrik. Jose Manuel Toledo izeneko gizonak bultzatuta hasi zen euskaraz idazten.

13. Ibilbide akademikoa

- **Erref:** LEZ-097/012
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:22:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea

Laburpena:

Ingeniaritza ikasketak hasi zituen Madrilén 1964an, bekadun bezala. Manuel Odriozola apaiz abertzalearekin egin zuen topo han, eta hark proposatu zion euskara eskolak ematea. Lezoko gurasoen elkarteko euskara irakasle ere izan zen. Euskal Filologia ikastea erabaki, eta Salamankara joan zen Koldo Mitxelenaren ikasle izatera. Horrela, Filologia Erromanikoa atera zuen.

14. Euskara Batua eta 'h'

- **Erref:** LEZ-097/013
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:22:28. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Koldo Mitxelenari buruzkoak. 1968an idatzitako txostena idatzi zuen Euskara Batuaren inguruan, jende askok ulertu ez zuena. H hizkiaren gatazka. Villasantek Axularren eredua jarraitzeko proposatu zuen, baina Altunak kontra egin zuen, Axularren ordezkari Mitxelena eredutzat proposatu zuen, euskara modernoago bat bilatzen baitzuen. Egan aldizkaria.

15. Euskara Batuaren gatazka

- **Erref:** LEZ-097/015
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:26:10. **Bukatu:** 00:29:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Arantzazuko biltzarrean egon zen Patri. Euskara Batua sortzeko literatur eredua aukeratzea ez zen erraza izan, batzuek literatur tradizioari heldu nahi zioten, aurretik Euskara Batu baten saiakera egon baitzen. Bestetik, beste batzuen iritziz datu soziolinguistikoetan oinarriturik beharko luke Euskara Batuak, ez literatur tradizioan. Lehentasuna elkar ulertzeari eman nahi zioten batzuek.

16. Idazteko zaletasuna, nondik?

- **Erref:** LEZ-097/017
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Aitaren eraginez datorkiola uste du Patrik, aita beti izan baitzen literatur zalea, bertsoak idazten zituen egun berezietan. Ikasketen bidez ere garatu zuen zaletasun hau. Bilbon Miguel de Unamuno lehiaketara ipuina aurkeztu eta irabazi egin zuen behin. Peñafiorida institutuan lankide zuen apaiz batek lupa bat oparitu zion, eta eskuizkribuak begiratzeko hasi zen handik aurrera. Hortik jaio zen haren tesia.

17. Pierre d'Urteri buruzko tesia

- **Erref:** LEZ-097/018
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:34:34. **Bukatu:** 00:36:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Koldo Mitxelena zuzenduta, Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu zuen Patrik haren tesia, Donibane Lohitzuneko Pierre d'Urteri buruzkoa. Kalotiko izatetik protestante izatera pasa zen d'Urte, eta Ingalaterrara egin zuen ihes. Bertako hizkuntzalariekin elkartu, eta Testamentu Zaharra itzultzen hasi zen, euskarazko gramatika bat idatzi zuen frantsesez, baita euskara-latina hiztegi bat ere.

18. Insitutuko irakasle izateko katedra eskuratu

- **Erref:** LEZ-097/019
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:36:47. **Bukatu:** 00:41:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Tesia egin aurretik, irakasle moduan ari zela Errenterian, institutuko irakasle izateko katedrak atera ziren 1979an, eta Patrik horietako bat eskuratu zuen. Haritzelarrekin Bordelera joan zen gero, eta han amaitu zuen tesia. Ondoren, UNEDen lan egitea eskaini zioten, Madrilén, materialaren sorkunzan. Han eman ditu bere bizitzako 22 urte.

19. Antzerkizalea gaztetatik

- **Erref:** LEZ-097/021
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:41:42. **Bukatu:** 00:45:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Apaizgai eskolan zaletu zen antzerkiarekin. Izan ere, antzerkiak irakurtzen zituzten eskoletan. Madrilén ere antzerki lanak ikasi zituzten. XX. mendeko antzerkigintzari buruz ere idatzi zuen, argitaratu gabeko testuak argitaratu zituen, batzuk Antzerki aldizkarian. Hamabi bat pastoral ere argitaratu ditu, XVIII. mendekoak.

20. Errepublika garaian antzerkia eta Maria Dolores Agirre

- **Erref:** LEZ-097/023
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:45:29. **Bukatu:** 00:47:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Errepublika garaian, euskal antzerkiaren loraldia gertatu zen, asko eta asko idatzi baitzen. 1932an, zehazki, azterketa gogor batzuk gainditu eta Maria Dolores Agirrek Euskal Iztundeko zuzendari postua eskuratu zuen. Lan asko euskaratu zituen, baita erdarara itzuli ere. Euskara irakasle gisa ere jardun zuen.

21. Maria Dolores Agirreri buruzkoak I

- **Erref:** LEZ-097/025
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:48:04. **Bukatu:** 00:51:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Errezilen jaio zen Mara Dolores Agirre. Anaia idazlea zuen, Uztaro nobela argitaratu zuen 1937an. Gazteak zirenean astoak lagunduta Tolosan saltzen zuten tratua, eta irabazitakoarekin bertso-paperak erosten zituzten. Maistra ikasketak egin zituen Donostian, lehenengo emakumeetako izan zen ikasketa hauek egiten. Basarrirekin batera irratsaio bat egiten zuen Radio San Sebastian irratian.

22. Maria Dolores Agirreri buruzkoak II

- **Erref:** LEZ-097/026
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:51:01. **Bukatu:** 00:54:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

1953tik aurrera Euskal Iztundearen zuzendari izan zen Maria Dolores Agirre. Urte osoko lana San Tomas eguneko antzezlanean erakusten zuten. Hogeita sei antzerki lan egin zituzten guztira, zortzi gaztelaniaz. Lan horien artean fama handiko jendearen antzezlanak zeuden. Beste asko obra itzuliak ziren, Maria Dolores Agirrek berak itzulitakoak. Jarrai antzerki taldea ere bazen Donostian.

23. Maria Dolores Agirrek gerraostean saria irabazi

- **Erref:** LEZ-097/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:54:19. **Bukatu:** 00:56:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Azpeitiko Nekazari Elkartek lehenengo antzerki sariketa antolatu zuen 1949an, eta sari bat irabazi zuen Mari Dolores Agirrek, hark idatzitako lan batekin. Bakarriketa bat zen lan honen oinarria, emakume baserritar bat protagonista duena.

24. Basarrik Maria Doloresi eskainitako bertsoa

- **Erref:** LEZ-097/030
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:58:55. **Bukatu:** 00:59:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Basarrik Maria Doloresen omenez egindako bertsoa.

25. Antzerki-munduko jendea ezagutu zuen

- **Erref:** LEZ-097/032
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:00:06. **Bukatu:** 01:01:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Eugenio Arozena eta beste hainbatekin egon zen Patri antzerki sariketetan, eta modu honetan jende ezagun asko ezagutu zuen, tartean Maria Dolores Agirre, Antonio Maria Labaien eta Piarres Lartzabal. Maria Dolores Agirre Urbietan kalean bizi zen, oso emakume azkarra eta goxoa omen zen.</p>

26. Euskal Iztundearen katedra

- **Erref:** LEZ-097/034
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:03:07. **Bukatu:** 01:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1913an Barriola zinegotziak 'lengua y declamacion vasca' (Euskal Iztundea) izeneko katedra ateratzea lortu zuen, non udalak antzerki eskola bat irekitzea jasotzen zen. Jende asko aurkeztu zuen katedra hori eskuratzeko, Toribio altzagak eskuratu zuen. Antzezlan asko egiten zituzten, hamaika tokitan. Batik bat Ramuntxo antzezlan egin zen ezagunena. Katedra, hasiera batean, Marcelino Soroak eskuratu zuen, honek Toribio Altzagari pasa, eta Maria Dolores Agirreren esku gelditu zen azkenik.

27. Toribio Altzagari buruzkoak

- **Erref:** LEZ-097/036
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:06:17. **Bukatu:** 01:07:57

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Euskal Iztundearen katedra eskuratu zuen Toribio Altzagak, baina horrez gain, antzerkiak ere idazten zituen. Oso gizon argia omen zen, Macbeth Shakespearren obra itzuli eta antzeztu zuten 1924an.

28. Euskal Iztundea eta Jarrai

- **Erref:** LEZ-097/038
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:08:10. **Bukatu:** 01:09:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Antzerkigintzan jardun zuten Euskal Iztundea eta Jarrai antzerki taldeek, Donostian biak. Gaur egun oraindik argitaratu gabe daude Jarrai antzerki taldeko kideek euskaratutako zenbait lan.

29. 70eko hamarkada, antzerki aldetik aberatsa

- **Erref:** LEZ-097/040
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:10:19. **Bukatu:** 01:12:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

1970eko hamarkadan, Madrilen zebilen Patri lanean, UNEDen. Idoia Gereñuk Jarrai antzerki taldeari buruzko tesia egin zuen. Forcadak egiten zizkien eszenatokiak. Jarraikoek, euren lanak aurkezteaz gain, Kataluniatik eta Ingalaterratik antzezleak ere ekartzen zituzten, eta oso lan interesgarriak aurketu zituzten Euskal Herrian.

30. Gipuzkoan antzerki-talde asko

- **Erref:** LEZ-097/041
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:12:17. **Bukatu:** 01:14:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Gipuzkoan antzerki-talde asko zegoen, Lezon ere bazen bat (Ixkulin dio Patrik baina momentuan nahastu egin da: ondoren argitu digunez, Allerru zen orduan zegoen antzerki-taldea). Maria Doloresen 'Txapela bete euri' lana antzeztu zuten hauek. Herriz herri ibiltzen ziren, antzezlanak antzezlanen truke. Oiartzunen Intxixu zen taldea.</p>

31. Kriseilu antzerki-taldea

- **Erref:** LEZ-097/042
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 01:14:17. **Bukatu:** 01:15:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia

Laburpena:

Bilbo aldean bazen antzerki-talde arrakastatsu bat, Kriseilu izena zuena. Jarrai antzerki-taldearekin elkarlanean aritzen ziren, Donostian eta Bilbon aritzen ziren biak, trukean.

32. Piarres Lartzabali buruz I

- **Erref:** LEZ-097/044
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:15:38. **Bukatu:** 01:18:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Sokoan bizi zen, antzerki asko idatzi zituen haren bizian. Larunbatetan Oiartzunera joaten zen afaltzera, eta han antzerki-taldearekin bildu eta hurrengo pausuak erabakitzen zituzten. 'Matalas' izan zen bere obrarik ezagunena.

33. Piarres Lartzabali buruz II

- **Erref:** LEZ-097/045
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:18:35. **Bukatu:** 01:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Gerraurrean hasi zen idazten, 'Gure Herria' aldizkarian, 'Antzerti' aldizkarian ere baten bat argitaratu zuen. Bestetik, 'Herria' aldizkarian ere berriak eta albisteak idazten zituen.

34. Antonio Maria Labaien

- **Erref:** LEZ-097/047
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 01:21:15. **Bukatu:** 01:23:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Tolosarra zen bera, eta antzerkigintzan zeresan handia izan zuen. Alemanieratik euskarara itzuli zituen zenbait lan. Euskal antzerkiaren historiari buruzko liburukiak ere atera zituen. Gerraurreko antzerkigintzaren aita Tolosan. Saran eman zituen zenbait urte, Elvira Zipitriarekin batera.

35. Labaien Mitxelenaren ikuspegiaren kontra

- **Erref:** LEZ-097/049
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:24:18. **Bukatu:** 01:26:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Labaienek gerraostean Koldo Mitxelenarekin zenbait gatazka izan zituen, Mitxelenak Euskara Batua leku askotako ezaugarriekin aberastu behar zela defendatzen baitzuen. Euskara Batuaren kontrako batzan egon zen Labaien.

36. Nor zen Katalina Eleizegi?

- **Erref:** LEZ-097/051
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:28:39. **Bukatu:** 01:32:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Katalina Eleizegi Donostian jaio zen, baina Nafarroan maistra bezala ibili zen lanean. Antzerki mordoa idatzi zuen hark, antzerki historikoak. Katalina Erausori buruz idatzi zuen Eleizegik.

37. Katalina Erauso, askatasunaren sinbolo

- **Erref:** LEZ-097/052
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:32:48. **Bukatu:** 01:34:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Katalina Eleizegik Katalina Erausori buruz idatzi zuen. Lan honen inguruan Patrik duen iritzia jasotzen da pasarte honetan.

38. Nemesio Etxanizi buruzkoak

- **Erref:** LEZ-097/054
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:36:57. **Bukatu:** 01:40:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

1963an Vitoria Eugenia Lurdes Iriondo eta lagunekin parte hartu zuen Nemesio Etxanizek, kantuan atera zen. Apaiza zen bera, baina antzerkiaren mundutik ez zen urrun ibili. Antzerkiak, nobelak eta kanta idatzi zituen. Euskal antzerkigintza berritzailearen alde egin zuen hasiera batean, baina gero ez zion Jarrai antzerki-taldearen ildoari jarraitu.

39. Nemesio Etxanizi buruzko hainbat artikulu

- **Erref:** LEZ-097/056
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 01:40:25. **Bukatu:** 01:42:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea

Laburpena:

Marcelino Soroari eta Nemesio Etxanizi buruzko artikuluak idatzi zituen UNEDen lanean ari zenean. Bestetik, Eusko Ikaskuntzan ere aritu zen, Oihenart aldizkariaren buru. Nemesio Etxaniz oso gizon alaia eta interesgarria zen.

40. Ez Dok Amairu, abangoardiaren adierazgarri

- **Erref:** LEZ-097/058
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 01:43:11. **Bukatu:** 01:45:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Lurdes Iriondo, Laboa, Bidegarai, Benito Lertxundi, Artze... Ez Dok Amairuko kideak aipatzen ditu. Mikel Laboaren lanak aztertzen egon zen Patri hainbat lagunekin, eta Ez Dok Amairu ere tartean zen. Kataluniako eta Europako modernitatea ekarri zuen Euskal Herrira Ez Dok Amairuk.

41. Euskal antzerkiaren loraldia eta Antzerti

- **Erref:** LEZ-097/060
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 01:47:01. **Bukatu:** 01:50:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Euskara » Euskararen historia
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Kazetaritzak garrantzi handia hartu zuen XIX eta XX. mendeetan. Euskarazko aldizkariak antzerkiak sartzen hasi ziren euren argitalpenetan. 'Gure Herria' aldizkaria, 'Euzkadi', 'El dia'... Egunerokotasunean sartzen hasi zen antzerkia, berriekin eta albisteekin batera. Antonio Maria Labaienek 'Antzerti' aldizkaria sortu zuen, eta bertan bildu zen euskal antzerkiaren loraldia, izan ere, euskarazko edukiak presentzia handia zuen, eta ale bakoitzarekin antzerki bat edo bi zetozen.

42. Errepublikaren eragina antzerkigintzan

- **Erref:** LEZ-097/062
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:51:12. **Bukatu:** 01:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

Errepublika garaian abertzaletasunak indarra hartu zuen eta antzerkigintzan islatu zen aldaketa hori. Antzerkigintzan jorratutako gaietako bat kostumbrismoa izan zen, senar-emazteen arteko liskarrak, eta abar. Bestetik, abertzaletasunaren gorakadarekin, kostumbrismotik antzerkigintza politiko-

